

Aldaburu (Aldau)



Elbarrena auzoa

MENDIZABAL OTAMENDI familia

ALDAU Elbarrena auzoko baserria da. Aldapa bat igarota dago eta bertakoen esanetan, hortik omen datorkio izena, *Aldapa buru*. Familiaren izengoitia *Sanprontxio* da.

Baserri inguruko soro, zelai eta basoen izenen artean daude: *Errota alde*, *Txara*, *Liñu putxu*, *Garalekua*, *Barruti zelaia*, *Artxal azpi*.

Elizaraino ordu erdiko bidea dute. Bertarainoko bidea ez zuten 1988ra bitarte eraiki.

Etxejabe dira 1915. urteaz geroztik. Orduko hogei mila pezeta ordaindu zuten eta baserriko konponketak 1965ean egin ziren, gelak, sukaldea eta kumuna berrituz.

1905ean ezkondu ziren Frantzisko Mendizabal eta Xegunda Barandiaran, Itsasondoko *Urki*ko alaba. Otordua etxean egin zuten. Beraien seme-alabak Maria, Antonio, etxera ezkondu zena, Joxe eta Mikela izan ziren. Joxe 1930ean hasi zen lanean Fabrika Handian.

1942an ezkondu ziren Antonio Mendizabal eta Brigida Ezeiza, Beizamako *Eieze*ta *Goikoa* baserrikoa. Antza denez, Antonio, Astigarragara joan zen lehengusuren baten ezkontzara eta han ezagutu zuen bere emaztea izango zena. Lezon ezkondu eta Zaragozara egin zuten ezkon bidaia.

Aldaura ezkondu zirenean, gurasoak, osaba-izebak, eta bi senide bizi ziren artean etxean. Hiru seme-alaba izan zituzten: Pedro, Milagros eta Mari Tere.

Pedro, etxerako geratu zena, Ana Maria Otamen direkin ezkondu zen. Ana Mari Abaltzisketako *Eliz-azpikoa* zen. 1972an ezkondu ziren Larraitzen, eta bi seme-alaba izan zituzten: Aritz eta Aloña.

Bospasei behi izaten zituzten baserrian. Gainera artoa, garia, babarruna eta patata ere egiten zituzten. Ordiziako ferian saltzen zituzten sagarrak, gaztainak eta arrautzak.

Baserriaren arrastoa idatzietan

J.C. Guerrak *Revista Bascongadan* argitaratu eman zuen *Ensayo de un padrón histórico de Guipúzcoa según el orden de las familias pobladoras* lanean, aipatzen du izenburu gisara Zaldibiko Juan Lopez, honela: *Aldaiburu*, Juan Lopez, vecino de Zaldivia en 1399. Ziurrena *Aldaiburu* etxe-izena izango zen.

Aldaburu izena agertzen da 1783ko abenduaren 17an, Aralar eta Enerioko basoen ustiaketa egiteko agiria sinatu zuten baserrien artean. Bi ordezkarekin agertzen da, agian, bi etxebizitza zirelako garai hartan.

Informazio emailea: Pedro Mendizabal



MENDIZABAL BARANDIARAN familia

Xegunda Barandiaran (ama), Frantzisko Mendizabal (aita), Antonio, Joxe eta Mikela.
Familia osatzeko Maria falta da.



MENDIZABAL EZEIZA familia

Pedro, Antonio Mendizabal (aita), Brigida Ezeiza (ama), Mari Tere eta Milagros.



MENDIZABAL OTAMENDI familia

Aritz, Aloña, Ana Mari Otamendi (ama) eta Pedro Mendizabal (aita).